

ELKARTASUN KILOMETROAK



Save the Children



**Elkartasun-
kilometroen
18. edizioa**



**Gida hau
GJH-etan
oinarritzen da**

TXOSTENA

Hona hemen Elkartasun-
kilometroen 18.
edizioaren gida
didaktikoa. Ikasleekin
gelan lantzeko tresna
pedagogikoa da,
sentsibilizatzeko eta
baloreetan hezteko
lana erraztuko dizuna,
eta lasterketa proiektu
hezitzaile eta solidario
osatuagoa egingo duena.

Edizioa:
Nieves García, Marisol Paniagua
eta Sara Adrián

Lankidetzza:
Marisa Ortega delVal

Artea eta maketazioa:
Germán Gullón (VALBHY)





1. AURKEZPENA

Ongi etorri, eta eskerrik asko Elkartasun-kilometroetan parte hartzeagatik! Gida didaktiko honi esker, ikuspegi partehartzailea, bizikidetzakoa eta elkartasunekoa emango diozue zuen lasterketari.

Lehenik, Save the Children-en elkartasun-lasterketari buruzko historia apur bat aurkituko duzue, gure eskola-proiektuak hemezortzi urte egiten baititu aurten. Ondoren, zuen laguntza bidaliko den eremuari buruzko informazioa emango dizuegu, baita parte hartzen duten ikastetxe guztiei buruzko informazioa ere: Afrikako Adarra: Gatazkak, klima-aldaketak eta COVID-19aren osasun-krisiak sekulako gosetea eragin dute, batez ere, haurrengan, eta inoiz ikusi gabeko larrialdi-egoera batean zergatik gauden kontatuz sakonduko dugu gaia. Milioika hurrei elikagaia falta zaie, eta bost urtez azpikoen desnutrizio-tasa handia da.

Gida honetan hezkuntza-maila desberdinetara egokitutako gelan lantzeko jardura didaktikoen proposamenak egiten dira. Bakoitzak GJH batean (Garapen Jasangarriko Helburua) jarriko du arreta, helburu horiek tratatzen dituzten gai desberdinak landu ahal izateko ikasleekin.

Webgunean aurki dezakezuen ikus-entzunezko materiala ere izango duzue, zuen ikasleak sentsibilizatzen laguntzeko eta euren moduko beste haur batzuk bizi duten errealitatea zein den ikasteko.

Erabilgarria izatea espero dugu.



Informazio gehiago
savethechildren.es/desnutricion-coles

2. GURE ELKARTASUN-LASTERKETA HANDI EGIN ZAIGU, 18 URTE BETETZEN DITU

2004an proiektua hasi genuenetik, ikasturtez ikasturte ehunka ikastetxek egin dute bat Haurren eskubideen defentsan korrika egiteko, eta Elkartasun-kilometroak hazte joan da. Urtero, gero eta ikasle, irakasle eta familia gehiagok hartu dute parte, eta gure lasterketa, zuen guztion lasterketa, estatu osoko eskola-lasterketa solidario zaharrena eta parte hartzen duten haur gehien dituen lasterketa bihurtu dute.

Berdin izan dio curriculumak geroz eta itxiagoak izatea, edo eguneroko bizitza zailtzen zuten krisi latzak bizitzea. Elkartasun-kilometroek bere txokoa zuten eskolako egutegian, elkartasuna beti izan baita ikastetxeetan lantzen den balio bat, eta geroz eta indar handiagoa du urteak igaro ahala. Irakasleak ez baitira ahazten bizikidetza, konpromisoa, hiritartasuna eta gisako edukiak beti presente egon behar dutela.

Edizio hau inoiz baino ilusio eta itxaropen gehiagoz prestatu dugu, jakin badakigulako garai zailetatik gatozela eta, oraindik azken ahalengitxoa egitea falta bazaigu ere, merezi dugu berriro ere bilkurak, ospakizunak eta egun bereziak edukitzea, eta horietako askotan elkartasun-lasterketari protagonismo berezia emanda.

Eskerrik asko gurekin batera Elkartasun-kilometroak adinez nagusi egin zaigula ospatzeagatik.




savethechildren.es/kilometros-cumple18

3. ZER GEHIAGO DAKIZU AFRIKAKO ADARRARI BURUZ?

Etiopia munduko potentzia bat da...

atletismoan: Abebe Bikilak maratonia irabazi zuen 1960ko Erromako Olinpiar Jokoetan, eta Olinpiar Jokoetan urrezko domina irabazi zuen Etiopiako eta Afrikako lehen atleta izan zen.



70eko hamarkadaren erdialdera...

Etiopiako Afar eskualdean hiru milioi urte baino gehiago zituzten Australopithecus afarensis hominidoen aztarna batzuk aurkitu ziren, Lucy ezaguna.

Somaliaz esaten da...

poeten nazio bat dela; poesia eta ipuinak kontatzeko ahozko tradizio bat garatu dute, eta belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititu dituzte.



Wangari Maathai kenyarra...

Bakearen Nobel saria irabazi zuen **Afrikako lehen emakumea izan zen.**

Horiexek dira lasterketarekin lortutako laguntza bideratuko den eskualdeari buruzko zenbait datu. Jarraian, geografiari, klimari eta gizarteari buruzko zertzelada batzuk emango dizkizuegu, hango haurrak zergatik babestu behar ditugun hobeto uler dezazuen.

NON DAGO AFRIKAKO ADARRA?

Afrikaren ekialdeari, duen forma bitxiagatik, Afrikako Adarra deitu ohi zaio. Eritreak, Etiopiak, Somaliak, Djibutik, Kenyak, Sudanek, Hego Sudanek eta Ugandak osatzen dute eskualde hori. Bere kokapen geografikoa dela-eta, estrategikoki garrantzia handia duen eskualdea da, bertako kostaldetik igarotzen baitira merkataritza eta petrolioak garraiatzeko itsasbideak. Horrek guztiak gatazkak eta ezegonkortasun sozial eta politiko handiak sortzen ditu eremu batzuetan.



ZENBAT LAGUN BIZI DA BERTAN?

Etiopia Afrikako bigarren herrialde jendetsuena da Nigeriaren ostean, eta ia ehun milioi biztanle ditu; Afrikako Adarreko biztanleen % 80 dira, eta eskualde oso zabala da biztanleen dentsitatea oso txikia den eskualdean.

NOLAKO KLIMA DU?


Herrialde hauetako klima, gehienetan, tropikala eta lehorra da, eta asko baldintzatzen du bertako bizitza, gainazal gehiena desertua delako eta oso euri gutxi egiten duelako. Lehorte-sasoiek sekulako eragina dute duten nekazaritza apurrean eta abeltzantzan. Espainiako prezipitazioarekin alderatuz gero, Almeria eta Las Palmas izango lirateke antzeko leku bakarrak.



NOLA ANTOLATZEN DA GIZARTEA?

Gizartea etnia taldeetan zatituta dago eta, aldi berean, klan patriarkaletan antolatzen dira; badira nomada izaten jarraitzen duten taldeak ere, euren animalia taldeekin ur- eta elikagai-bila joaten direnak. Gizonek komunitateko liderraren aurrean erantzuten dute eta etxetik kanpo lan egiten dute, baina emakumeak arduratzen dira etxea eta familia zaintzeaz: uztak egiten dituzte nekazaritza-eskualdeetan, produktuak merkatura eramaten dituzte, familia elikatzeko animaliak zaintzen dituzte eta haurren hezkuntza eta heziketaz arduratzen dira, non kultura ahoz transmititzea funtsezkoa den. Baina ez hori bakarrik, askotan, bide luzea egin behar dute ur-bila joateko. Ezkontzetan emakumeen iritzia ez da kontuan hartzen, aitzak adosten baitu nor izango den senarra.

Baldintza horiekin guztiekin, neskek oso murriztuta daukate hezkuntzarako sarbidea, eta oso goiz uzten dute.



ZERGATIK BEHAR GAITUZTE AFRIKAKO ADARREAN?

Giza potentzial handiko eremua izan arren, neska-mutilek ezin dute irakasle, mediku, poeta, zientzialari edo atleta izatez amestu, desnutrizioaren ondorioak izugarriak baitira.

Lehorte ziklikoek eragindako goseteek, gatazkek eragin eta, orain, COVID-19aren pandemiak are gehiago okertutako muturreko pobrezia Giza Garapenaren Indizeko herrialde pobreenen artean kokatzen ditu. Eskualdean hamahiru milioi pertsonak presazko laguntza humanitarioa behar dutela kalkulatu da.



4. XXI. MENDEKO GOSEAREN MUNDUKO KRISI HANDIENEAN GAUDE



ZERGATIK EZ DA NAHIKOA ELIKAGAIK EDUKITZEA BIZIRAUTEN?

- 1 Epe luzera kalteak saihesteko, ezinbestekoa da haurrek nahikoa elikagai nutritibo dituztela ziurtatzea. Goseak gorputza janari gabe geratzen ari dela eta energia behar duela adierazten digu.
- 2 Etengabe eta maiz gose izateak desnutrizioa ekar dezake; hau da, elikagai nutritibo gutxiegi jatea eta gaixotasun infekziosoak behin eta berriro harrapatzea.
- 3 Desnutrizioa daukate adinerako baxuegiak direnean, daukaten altuerarako oso argal daudenean eta bitaminak eta mineralak falta zaizkienean. Gainera, elikadura-edema ere eduki dezakete, hau da, oinak, aurpegia eta gorputz-atalak puztuta izan ditzakete.
- 4 Desnutrizio akutu larria da bost urtetik beherako haurren heriotza-arrazoi nagusia, eta hura prebenitzea eta tratatzea funtsezkoa da haurrek biziraun eta garatzeko. Heriotza horiek desnutrizioaren emaitza zuzena izan daitezke berez, baita beherakoaren eta pneumoniaren moduko haurren beste gaixotasun batzuk zeharka eragindakoak ere; desnutrizioa duten haurrek ezin baitituzte halakoak gainditu.



DESNUTRIZIOA SENDATU EGITEN DA?

Desnutrizio kroniko baten ondorioa hazkuntza atzeratzea da, hau da, fisikoki eta kognitiboki ezin haztea, eta bizi osorako izan ohi da.

Epe laburrean, desnutrizio akutu larria duten haurren presazko tratamendu bat behar dute bizitza salbatzeko. Erabiltzeko prest dauden elikagai terapeutikoak (plumpy nut) sortu izanak nabarmen hobetu du egoera.

Desnutrizio akutu larria milaka haurren bizitza salbatzeko azken aukera da, baina ez du ordeztzen elikagai nutritiboak bidezko modu batean lortzea, pobreziarekin amaitzea eta desnutrizioa hasi baino lehen hura prebenitzen duten beste esku-hartze batzuk babestea.

Komunitateko osasungintzako langileek modu goiztiarrean hautematen dituzte desnutrizio akutu larriko kasuak, MUAC bidez besoaren goialdeko zirkunferentzia neurtuta, eta mediku-arreta ematen dute.

Esku-hartze horiei esker:

- Biziraute-tasa eta haur askoren tratamendua hobetu egiten da.
- Komunitateek, laguntza gutxiagorekin, tratamenduak kudea ditzakete.
- Eta ospitaleko tratamendua baino askoz merkeagoa da.



Desnutrizio akutuari amaiera jartzea erronka sozial eta politiko bat da. Prebentzioak eta epe luzerako soluzioek nazioarteko eta tokiko komunitatearen konpromisoa behar dute, osasun-zerbitzuak izatearekin, elikadura-ohiturekin eta ur- eta saneamendu-ekarpenarekin lotutako aldaketa jasagarriak bultzatzeko.

Nesken kasuan, ikusten dugu osasun-zerbitzuak eta sexu- eta ugalketa-eskubideak bermatzeko aurrerapena arriskuan dagoela ikusten dugu, geroz eta ohikoagoak direlako emakumeen eta haurren eskubideen aurka antolatutako erasoak. Berrogeita zazpi miloi emakumek antisorgailu-metodo modernoak eskuratzeko aukera galduko dute, eta horrek nahi ez diren zazpi milioi haurdunaldi gehiago ekarriko ditu. Haurdunaldi asko arrisku handikoak izango dira nerabeetan.

PLUMPY NUT

Plumpy nut energia handiko mikronutrientez aberastutako ore bat da, eta desnutrizio akutu larria duten bost urtez beherako haurrak tratatzeko erabiltzen da. Ez da ezer prestatu behar kontsumitzeko, eta beraz soluzio praktikoa da janaria prestatzeko instalazio eta erregai gutxi dagoen lekuan. Eta gainera, umeak etxean bertan eta komunitatetik atera gabe trata daitezke.




5. GAUR HAURREN BIZIRAUTEA ARRISKUAN DAGO, INOIZ EZ BEZALA GAINERA

ZERGATIK DAGO ORAIN LEHEN BAINO GOSE GEHIAGO?

COVID-19aren osasun-krisia hasi eta urtebetera, gatazkak eta klima-krisiak eragindako ondorioak jasaten dihardugu. Munduko haurrek zuzenago eragiten dien beren krisiari egin behar diete aurre. Populazioaren zati handi bat betiko bizimodura itzultzeko koronabirusaren aurka txertatzen ari den bitartean, milioika neska-mutil gosez hiltzen dira. Pandemia baino lehen gosete-maila inoizko handiena zen, eta egun zenbaki horiek nabarmen igotzeko mehatxua dago.

Joera horren bi arrazoi nagusiak klima-aldaketa eta gatazkak dira, eta COVID-19aren birusa azken urtean. Mundu-mailako arazo horiek munduko liderren konpromiso handia behar dute, modu eraginkor batean aurre egin nahi bazaio behintzat.



1. Klima-aldaketa

Tenperaturaren igoerak muturreko meteorologia-fenomenoak gogortasun eta maiztasun handiagoz sortzea dakar (ekaitzak, suteak, uholdeak, lehorteak...). Azken urteetan, hirukoiztu egin dira hondamendi naturalak.



Uholdeek laborantzak suntsitzen dituzte, baina baita tenperatura altuek ere. Munduko zenbait eskualde pobreenetan, ezinbestekoa dute nekazaritza bizirauteko, eta euri-faltak elikagaiak ongi ekoiztea galarazten die, eta ondorioz, balio nutrizional kaxkarragoko elikagaiak lortzen dituzte.



Afrikako Adarreko herrialdeek lehorte larriko urte bat izan ohi uzten hamar urtez behin, baina azken hamarkadan soilik, gutxienez hiru urtetan izan dute.

Afrikako Adarreko

herrialdeek gutxienez hiru
lehorte larri izan dituzte azken
hamarkadan.

2. Gatazka

Munduan gose diren pertsonen % 60 gatazka-guneetan bizi dira, eta gatazka horiek sortzen dituzte elikagai-krisi okerrenak.

Gatazkek familiak deserriratzen dituzte, ekonomiak suntsitzen dituzte, azpiegiturak suntsitzen dituzte eta nekazaritza-ekoizpena oztopatzen dute. Egun, 82,4 milioi lagunek ihes egin behar izan dute etxetik, historiako beste edozein unetan baino jende gehiago da hori.

Gatazka-guneetan bizi diren haurrek desnutrizioa jasateko aukera bikoitza da, gune baketsu batean bizi diren haurrekin alderatuta, eta hazteko atzerapena duten bost haurretatik lau gerrek eragindako herrialdeetan bizi dira egun.



82,4 milioi lagunek

ihes egin behar izan dute etxetik



3. Covid-19

COVID-19ak laguntza humanitarioan ere izan du bere eragina; gose larriko pertsonen kopurua bikoiztu egingo dela aurreikusten da, eta ehunka milioiei eragingo die.

Lantegiak itxi egin direnez, elikagaien prezioa asko igo zen, eta janariaren prezioa gehiegizkoa zen jada milioika lagunentzat. Nekazaritza-sasoian izandako atzerapenen eta lanera joateko murrizketen ondorioz, batez beste baino uzta txikiagoak lortu dira herrialde eta eskualde askotan.

Berrogeialdiaren, bidaia-murrizketen eta beste blokeo-neurri batzuren ondorioz, ehunka lanpostu galdu dira. Diru-sarreraren galderak izugarritzko eragina izango du komunitate pobre eta zaugarrienetan.

Gainera, pandemiaren eragin ekonomikoen ondorioz, izugarri haziko da haur-ezkontzen kopurua. Ondorioz, 2,5 milioi neskato gehiago ezkontzera behartuko dituzte datozen bost urteetan.

Mundu-mailako osasun-krisiak eskola itxi dituenenez, haur askok ezin izan dute behar adina elikagai lortu. 2021. urtearen hasieran, 370 milioi haurren eguneroko elikagai-iturri nagusia eskolako janaria zen. Egun, eskoletako elikagai-programa horien % 40 galdu da.

Betiko moduan, eskoletako eta hezkuntzako kolpe latz horrek ondorio arriskutsuak izan ditu neskegan: indarkeria-arriskua eta elikadura- eta finantza-ziurtasun eza handitu da, eta nerabeetan ohikoak baino milioi bat haurdunaldi gehiago izatea aurreikusten da.



**Egun,
desnutrizio-
programen % 40
galdu da eskoletan.**

6. EZ DAGO GOSEAREN AURKAKO TXERTORIK, BAINA KONPON DAITEKE ORAIN EKITEN BADUGU

GURE ERANTZUNA

Elikadura-krisi honi aurre egiteko gure epe laburreko erantzuna bizitzak salbatzea eta gosete orokortua prebenitzea da, eta ondoren, epe luzerako soluzioak eta sistema erresilienteagoak aplikatuko ditugu etorkizuneko krisietarako. Gure lana funtsezko hiru zutabeen inguruan egituratzen da:



Funtsezko osasun- eta nutrizio-zerbitzuak mantentzea

- Biztanle guztiek funtsezko osasun- eta nutrizio-zerbitzuak doan eskuratzea; adibidez, desnutrizioaren tratamendua eta txertaketa-programak.
- Komunitateko osasungintzako langileak babestea eta haiei laguntzea.



Amagandiko edoskitzea eta haurtxoentzako eta haur txikientzako elikadura osagarria babestu, bultzatu eta babestea

- Hasiera goiztiarrak, amagandiko edoskitze eksklusiboak eta sei hilabete eta gero amagandiko edoskitzea jarraitzeak, bai eta elikadura osagarriak ere, bizitzak salbatzen dituzten eta infekzio askoren aurka babesten dituzte.



Familien elikagai nutritiboak eskuratzeko gaitasuna babestea, baita bizirauteko bitartekoak eskuratzeko gaitasuna ere

- Elikadura-segurtasuna eta bizimoduak (nekazaritza eta abeltzantza) babesteko ekintza bizkorrak.
- Elikagai osasuntsu eta nutritiboak eskuratu ahal izatea bermatzea, familia eta komunitate kaltetuenak babestuz.
- Diru-sarrerak eta gizartea babesteko neurriak babestea, familiek goserik izan ez dezaten; adibidez, eskudiruzko transferentziak egitea edo elikadura nutritibo bat lortzeko ohiturekin trebatzea amak.



Zaurgarrienak babestea, neskatok: Save the Children-en nesken aurka geroz eta ohikoagoa den genero-indarkeriari ekiteko programak eta kanpainak egiten ditugu

- Baita behartutako ezkontzei buruzkoak ere, neskek hezkuntza, osasuna eta ahalduntzea izateko dituzten eskubideak babestuz, gertuko egoeretan edo orokorragoetan erabakiak hartzen parte hartu ahal izateko.





PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

Balioetan oinarritutako hezkuntza funtsezko hezkuntza-oinarria da ikastetxeetan eguneroko ekintzetan, balioek jokabidea markatu eta nortasuna eraikitzeke balio baitute, eta beraz, uste dugu jaiotzetik balioen inguruko esperientzia positiboak landu behar ditugula, hezkuntza-prozesuaren ezinbesteko zati baita.

Zentzu horretan, **jardueren proposamen didaktiko** honek, hezkuntza-esperientzien bidez, giza-balioak eskola-curriculumera egokitzen lagunduko dizuete, baita zuen ikasleei Afrikako Adarreko mila haurrek bizi duten egoera ezagutarazten ere. Izan ere, eskualde horretara bideratuko baita **elkartasun-lasterketan** lortutako laguntza.

Gainera, aurten badugu zer ospatu, Elkartasun-kilometroak adinez nagusi egingo da, eta jarduera batzuk sareetan partekatzeragonbidatzen zaituztegu [#KilometrosCumple18](#) traola erabiliz, jende gehiagorengana iritsi eta neska-mutilek elkartasun-kilometroetarako babesle gehiago lortu ahal izateko.

Garapen Jasangarriko Helburuak, balioetan oinarritutako heziketa eta Haurren Eskubideak konbinatu ditugu “funtsezko gai” hauek bateratzeko:

1. Zero gosea eta justizia
2. Osasuna eta ongizatea
3. Hezkuntza eta garapena
4. Genero-berdintasuna
5. Solidaritatea eta parte-hartzea
6. Munduko hiritarrak eta eskubideak

“Funtsezko gai” bakoitzean, Save the Children-ek Afrikako Adarrean lantzen dugun gizarte-errealitatean oinarritutako jarduera didaktiko bat aurkeztuko dizuegu heziketa-etapa bakoitzera (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza) egokitutako proposamenekin.



Proposamen didaktikoak helburu hauek konbinatzen ditu

- Balioen prozesu pertsonala berreraikitzea erraztea.
- Pertsonen eta planetaren aldeko ekintza-planeta parte hartzea erraztea.
- Gizarteko eta munduko errealitatean parte hartzeko ikaskuntza aktibo bat bultzatzea.

Edukiak

Funtsezko gai bakoitzeko **edukiak** gizarte plural bateko balioetan oinarritzen dira: elkarrenganako errespetua, erantzukizuna, berdintasuna, elkarrizketa, solidaritatea eta gatazkak modu baketsuan konpontzea. Balio horiek ikasleak munduko hiritar eta parte-hartzaileak izateko prestatzen dituzten elementu transbertsalak dira. Garapen Jasangarriaren Helburuak, pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko mundu-mailako ekintza-plan diren heinean, erabakiak hartzeko gida bat izan behar dute gobernuentzat eta gizartearentzat eta, gure kasuan, hezkuntza-komunitatearen gida dira.

Mundu-egunak

Azkenik, mundu-egunen garrantzia nabarmendu nahi da, konpondu gabeko arazoen garrantzia adierazten dutelako eta sentsibilizatu egiten gaituztelako gizarteko eta munduko errealitatean ekiteko eta parte hartzeko. Jarduera batzuk zuen programazioak osatzeko ere balio dezakete Elkartasun-kilometroak egiteaz harago:

URRIA

- 11. Nesken nazioarteko eguna
- 16. Elikaduraren mundu-eguna
- 17. Pobreziarekin amaitzeko mundu-eguna

AZAROA

- 20. Haurren eskubideen eguna
- 25. Emakumearen aurkako indarkeriarekin amaitzeko nazioarteko eguna

ABENDUA

- 10. Giza eskubideen eguna

URTARRILA

- 30. Bakearen eguna

MARTXOA

- 8. Emakumearen eguna
- 22. Uraren mundu-eguna

APIRILA

- 6. Garapena eta bakea lortzeko kirolaren nazioarteko eguna
- 7. Osasunaren mundu-eguna
- 22. Lurraren nazioarteko eguna

MAIATZA

- 25. Afrikaren eguna

EKAINA

- 5. Ingurumenaren mundu-eguna





Zero gosea eta justizia

«GOSEAREN KOLOREAK»

AZALPENA

Irakasleak esaldi hauek irakurriko ditu «gosea» hitzak kolore eta usain desberdinak dituela erakusteko ikasleei:

- Paco Malagakoa da, itsasoaren usaina gustatzen zaio, eta gose denean etxera joaten da ogitarteko bila.
- Kokorikoko oilo bat da, herriko usaina gustatzen zaio, eta gose denean arto-aleak bilatzen ditu.
- Sahra Somaliakoa da, amaren ondoan eseri eta istorioak entzutea gustatzen zaio, eta gose denean askotan ez dauka janaririk.

Kolorea jarriko diogu justiziarri, baliabide gutxi dituzten herrietan oinarritzko elikagaiak falta direla agerian utziz; horretarako, koloretako arkatzak aterako ditugu, hausnartu eta marrazkiak egingo ditugu, eta sare sozialetan jarriko ditugu [#KilometrosCumple18](#) traolarekin

3-6 HAUR-HEZKUNTZA

Irakasleak piktogramazko horma-irudi bat prestatuko du Paco, Kokorikoko eta Sahraren esaldiekin, eta «Justiziarri kolorea jarriko diogu» idatziko du izenburu gisa. Bilatu diseinuak marraz daitezkeen hitzetarako (Paco, itsasoa, ogitartekoa, oiloa, herria, artoa, Sahra, emakume bat istorioak kontatzen, plater hutsa eta abar)

Neska-mutiek horma-irudiko hitzak pinturekin, eranskailuekin, hatzetako margoekin, paperekin... apainduko dituzte Argazkiak aterako dira sare sozialetan argitaratzeko eta hezkuntza-komunitateari erakutsiko zaio (edo ahal bada, tokian bertan) taldearen sorkuntza eta baliabide gutxi dituzten herriei gure babesa erakusteko.

6-12 LEHEN HEZKUNTZA

Irakasleak folio bat banatuko dio parte-hartzaile bakoitzari (I. ERANSKINA); folioak laukitxo handiak ditu, neska-mutiek esaldiak irakurri eta gero, banaka Paco, Kokorikoko, Sahra, itsasoa, herria... marraztu eta margotzeko.

Banaka marrazten amaitu eta gero, gela talde txikitan antolatuko da marrazkiak moztu eta marrazki horiekin collage-estiloko horma-papera apaintzeko. Ikastetxeak horma-irudien erakusketa bat antola dezake ikastetxeko gun e egoki batean geletan egin diren sorkuntzak ezagut ditzaten ikastetxeko komunitateak, familiekin eta herriekin. Gainera, bideo labur bat ere graba daiteke lanekin sare sozialetan argitaratzeko [#KilometrosCumple18](#) traolarekin.


Irakasleak 5 taldetan banatuko ditu ikasleak; bakoitza Pacoren, Kokorikokoren eta Sahraren esaldiak marrazki bidez adierazteko antolatuko da. Taldeen helburua ahotsa jarri eta justiziaren beharra azaltzeko bineten bideo bat egitea izango da, «Justiziari kolorea ematen diogu» lelopean. Ikastetxeak ikastetxe-/herri-mailan erakuts ditzake bideoak eta ikastetxeko sare sozialetan ere argitara ditzake *#KilometrosCumple18* traolarekin eta Save the Children-era bidali, hark zabaltzeko.

AMAIERAN

Taldeari galdetuko diogu ea Elkartasun-lasterketan korrika egitea beharrezkotzat jotzen duten beste neska-mutil batzuei haien bizitza eta osasuna hobetzen laguntzeko.

MATERIALA...

Piktogramekin egindako horma-irudia, hatzetako margoak, argizarizko koloreak, koloretako arkatzak, I. Eranskina (26. orrialdea), paper jarraitua, guraizeak.





Osasuna eta ongizatea

«HITZ OSASUNGARRIEN NAHASPILA»

AZALPENA

Misio bat daukagu: «*munduko pertsona guztiak osasunaren lagun egitea*». Badakigu osasun-sistema indartsu batek gaixoak eta, oro har, herritarrak babesten dituela ustekabeko egoeretan, adibidez, bizi izan dugun COVID-19aren pandemian. Afrikako Adarreko herrialdeek laguntza asko behar dute, bai herrialdekoa, bai kanpoko, ongizatea konpontzeko eta lehorte ziklikoek, gatazkek, eta orain, pandemiak, eragindako desnutrizioa prebenitzeko.

Hitzak gure lagun izan daitezke guztion osasunerako lagunak egiteko misio honetan.

3-6

HAUR-HEZKUNTZA

Irakasleak musika lasaia jarriko du gelan eta bizitzarako hitz osasungarriak jarriko ditu ontzi batean (ur garbia, basoak, eskuak garbitzea, itsasoak, fruta, maitasuna, eguzkia, arrainak, sendagaiak, txoriak, zuhaitzak, medikuak, bitaminak, ibaiak, besarkadak...). Taldeari azaltzen dio **dantzaren eta mugimenduaren bidez munduko pertsonentzako hitz osasungarriak bidaltzeko** misioa dutela; hitzak banaka irakurriko ditu eta hurrek gorputz-mugimenduekin adierazi beharko dute hitz hori. Mugimendua luzatzeko eskatuko die, pertsona guztiengana iritsi dadin. «Hitzen nahaspilaren» gorputz-adierazpena amaitu eta gero, irakasleak karnet-estiloko kartulina gogor bat banatuko dio parte-hartzaile bakoitzari, eta bakoitzak bere hatz-marka jarriko du, osasunaren lagun eta banatzaile delako. Irakasleak familiara zabaltzea proposatuko du eta helduek ere karneteen euren hatz-marka gehi dezaten gonbidatuko ditu, osasunaren lagun egin daitezen haiek ere, eta gelako txoko batean jarriko ditu beti gogoan izateko.

6-12

LEHEN HEZKUNTZA

Irakasleak bikoteka jarri eta **osasunaren lagun diren hitz sorta bilatzea** eta talde osoarentzako kartulina batean idaztea proposatuko du. Bikote bakoitzak hitz horiek zergatik aukeratu dituen azalduko du, eta horrela, ideiak trukatu eta elkarri entzungo diote. Amaitzeko, taldeak eskuaren edo hatzaren marka utziko du talde-kartulinan, guztiontzako osasunaren lagun izateko konpromisoa indartzeko seinale gisa. Kartulinazko horma-paperak osasuna eta ongizatea gure ingurunean ezinbestekoa dela beti gogoan izateko ikastetxeko leku batean jarriko dugu.

Irakasleak bost boluntario eskatuko ditu, eta gelako txoko desberdinetan jarri eta bertan geldi egoteko eskatuko die. Gainerako ikaskideei azalduko die gelan sakabanatuta dauden ikasleak Afrikako Adarreko herrialdeak direla (Somalia, Etiopia, Kenya...) eta guztientzako osasunaren lagun egiteko misioa dutela. Irakasleak gelako parte-hartzaileei banaka osasunerako beharrezko diren hitzak post-it batean idazteko eta herrialde bakoitza ordezkatzeko duten ikaskideen gorputzean itsasteko eskatuko die. Minutu batzuk igaro ostean, boluntario bakoitzak jaso dituen hitzak bildu eta irakurriko ditu. Hitzak irakurtzen amaitzen duenean, herrialdeek adieraziko dute nola sentitzen diren, eta munduko pertsona guztiek osasuna eta ongizatea izateko beharrari buruzko iritzi-erronda bat hasiko da.

Jarduera amaitzeko, gelako parte hartzaile bakoitzak hitz-gako bat aukeratu behar du, beharrezkoa izango dena munduko pertsona guztiekin osasunaren lagunak egiteko, eta txanda bizkor batean adieraziko da. Boluntarioak eskatzen dira, hitz horiekin, osasunaren lagun dekalogo bat egiteko munduko pertsona guztientzat, eta tokiko edo eskualdeko egunkarira, aldizkarira edo irratira bidaltzeko.

MATERIALA...

Musika, folioak, kartulinak, boligrafoak, errotuladoreak, pinturak eta post-itak.





Hezkuntza eta garapena

«SEKRETUA EZAGUTUKO DUGU»

AZALPENA

Nurak sekretua ezagutu du... orain badaki hezkuntza ezinbesteko haur-eskubidea dela! Bertan datzate berdintasunak, bakeak, herrien egonkortasunak, giza garapenak eta pertsonen gizartean duten paper aktiboa.

Nura eskolara joaten da, han seguru dago beste neska-mutil batzuekin, egunero zerbait berria ezagutzen du, andereñoak bizitzarako balio dioten gauza asko irakasten dizkio, ipuinak kontatzen ditu eta abestiak abesten ditu..., badaki eskola leku atsegin bat dela, magia duen toki bat.

3-6

HAUR-HEZKUNTZA

Nurak bere **ipuin**en **txokoan** berekin jolastera gonbidatzen gaitu, ipuinek ikasteko sekretua ezagutzen laguntzen digutela diolako. Irakasleak atsegin duten ipuin bat aukeratzera gonbidatzen ditu haurrak, eta gainerako ikaskideei aurkezteko eskatuko die. Irakasleak musika jarri eta parte-hartzaile bakoitzari aukeratu duen ipuina eskatuko dio, leku eroso bat topatu eta begiak tapatzeko esango die. Ezkutatu ipuinak gelan, eta amaitzen duzunean, gonbidatu ikasle guztiek batera aukeratu duten ipuina aurkitzera. Gordelekua nahi adina aldiz errepika daiteke, taldea motibatuta dagoela ikusiz gero. Amaitzeko, aukeratutako ipuin guztien argazki bat egingo dugu, eta ikastetxeko sare sozialetan argitaratuko dugu *#KilometrosCumple18* traolarekin.

6-12

LEHEN HEZKUNTZA

Honela hasten da istorioa... txoritxoek Nurari hitz egiten diote eta hezkuntza zein garrantzitsua den kontatzen diote. Irakasleak kartulinazko txori bat apaintzera eta Nurarentzat munduko haur guztiek hezkuntza jasotzeko duten eskubideari buruzko mezu bat sortzera gonbidatzen ditu parte-hartzaileak. Txoria eta mezua moztu eta lotu egingo dituzte bi aurpegiak ikusgai eginez, hari batetik zintzilik jarri eta, guztien artean, hezkuntzaren aldeko txorien karrusel bat sortuko dute ikastetxean edo gela bakoitzean. Sare sozialetan karruselaren argazki bat argitara daiteke *#KilometrosCumple18* traolarekin

Afrikako Adarra, eta bereziki, Somalia, poeten lurra da; belaunaldiz belaunaldi, ahozko tradizioa ikasteko modu bat izan da. Guztientzako hezkuntza lortzeko gauza politak amestera gonbidatzen zaituztegu, eta banaka edo taldean **poesiak sortzera**, guztientzako hezkuntzaren aldeko eskola-poesiaren erakusketa bat egiteko ikastetxean edo herrian. Bilatu pertsona guztien hezkuntza bultzatzen duten hitzak eta erabili poesiak sortzeko. Itxuraz, bizitzarik ez duenari bizitza eman diezaiokezue, xehetasun poetiko batekin azal dezakezue...

Bildu sortutako poesiak eta argitaratu sare sozialetan *#KilometrosCumple18* traolarekin

MATERIALA...

lpuinak, pinturak, kartulinak, koloretako arkatzak, haria, egur zati txikiak edo makilak karrusela egiteko, boligrafoak, folioak.





Genero-berdintasuna

«ZAINZAK EZ DAUKA GENERORIK»

AZALPENA

«Emakumeek etxearen eta familiaren zaintzak bere gain hartu dituzte gizarteko antolakuntzan; gainera, bizi diren tokiaren arabera, uztaren ardura dute nekazaritza-guneetan, produktuak merkatura eramaten dituzte, familia elikatzeko animaliak gobernatzeaz arduratzen dira, seme-alaben heziketaz eta hazkuntzaz arduratzen dira eta, sarri, joan-etorri luzeak egiten dituzte ur-bila joateko...

Emakumeek gizartearen egitura zaintzeko eta mantentzeko zeregin handiak bere egiten dituzte isilean, baina beren iritzia ez da kontuan hartzen, ez da euren iritzia entzuten, ezta bere bizitzan ere. Ezkontza askotan, aitak eta senargaiak adosten dute batasuna, emakumeak onartzen ote duen jakin gabe. Emakumeenganako jarrera horrek asko baldintzatzen du nesken garapena, askok goiz uzten baitute eskola...»

Gizarte guztiak hobetzeko oso garrantzitsua da emakumea baloratzea, hezkuntza eskuragai jartzea eta gizartean parte hartzen uztea.

3-6

HAUR-HEZKUNTZA

Irakasleak Etio pian bizi diren Amirri eta Pakari buruz hitz egiten die haurrei. Oraindik eskolara joaten ez diren bi seme-alaba dituzte, 2 eta 3 urtekoak. Kontatzen dutenez, **egunerokoan zeregin asko egin behar dituzte**, besteak beste:

Etxea txukundu / Arropa garbitu / Janaria prestatu / Arropa zabaldu eta txukundu / Merkatuan erosketak egin / Baratzan lanean aritu / Seme-alaba txikiak zaindu / Ur bila joan egunero.

Irakasleak biltzar bat egingo du, eta haurrei aipatu diren zeregin bakoitzari buruz galdetuko die: nork egiten ditu? Amirrek edo Pakak? Horrela, parte-hartzaileek gaur egun dituzten ideiak identifikatu ahal izango ditugu nesken eta mutilen rolei dagokionez. Irakasleak aldeak ikusten baditu eguneroko bizitzaren zaintzari dagokionez, bi sexuek parte hartzeak bizitzako zaintzan nolako garrantzia duen galdetuz: gustatzen zaizu aitak zaintzea?, ongi iruditzen zaizue guztiok, aitak, amak eta zuek, etxea zaintzea?, nori gustatzen zaio janaria prestatzea?

Amaitzeko, parte-hartzaile bakoitzak bizitzako zaintzaren zereginetatik gehien zer gustatzen zaion kontatuko du.

Ikasleak talde guztiari galdetuko dio: nork egiten ditu zeregin hauek... Etxea txukundu... Arropa garbitu... Janaria prestatu... Arropa zabaldu eta txukundu... Merkatuan erosketak egin... Baratza landu... Seme-alaba txikiak zaindu... Ur-bila joan egunero?

3-5 parte-hartzaileko lan-taldeak egingo dira gela bakoitzean, eta galdera hauek banatuko zaizkie folio batean: **bazenekien historian zehar emakumeak egin dituztela eguneroko bizitzako zaintza-jarduerak?, bazenekien emakumeek hainbeste zeregin egiten dituztela?, bidezkoa iruditzen zaizu?, uste duzu aldatzeko oso garrantzitsua dela gizonek ere bizitzaren zaintza-zereginak baloratu eta egitea, pertsona guztiek zaindu behar dugulako eta guztiok merezi ditugulako zaintzak?**

Utzi 10 minutu talde bakoitzari planteatutakoa hausnartu eta trukatzeko, eta amaitu gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna babesteko esaldi batekin. Talde bakoitzari kartulina bat banatuko zaio bere esaldia idatzi eta ikastetxean genero-berdintasunaren aldeko talde-collage bat osatzeko. Collagea sare sozialetan zabalduko dugu bideo edo argazki baten bidez **#KilometrosCumple18** traolarekin.

Irakasleak jardueraren azalpena irakurriko du gelan eta parte-hartzaile bakoitzak, une batez, emakume guztiak denboran eta espazioan zehar lotzen dituen **hari ikusezin bat dagoela** imajinatzeko eskatuko du... zein izen edukiko luke hari horrek?, nola deituko zenioke hari horri? Parte-hartzaile bakoitzak paperean idatziko du eta modu anonimoan bilduko da.

Erantzun guztiak arbel edo horma-irudi batean islatuko dira, eta bikoteka proposatutako hitzetako bat aukeratuko da. Taldean aukeratutako hitzak aztertuko dira eta bakoitzaren esanahia azalduko da.

Ikastetxeko ikasle boluntarioek hitzen “vademecum” bat egin dezakete genero-berdintasunaren alde bakoitzaren esanahiarekin, eta publikoki argitara dezakete herriko edo komunitateko tokietan (liburutegiak, udaletxea, egoitzak, antzokia) edo sare sozialetan **#KilometrosCumple18** traolarekin.

MATERIALA...

Boligrafoak, folioak, kartulinak, paper jarraitua, errotuladoreak.





Solidaritatea eta parte-hartzea

«HOBETU MUNDUA»

AZALPENA

Elkartasuna beti izan da mundua hobetzeko loturak sortzen dituen konpromiso- eta babes-balio bat. Modu desberdinetan erakuts daiteke, baita keinu txikiekin ere. Elkartasunean gure adibidea funtsezkoa da: hitz egitea, entzutea, gure inguruneetako eta munduko errealitate desberdinekin ulergarriak izatea, batasun-sentimendu bat eta gizartearekin, gainerako izakiekin eta ingurumenarekin harreman harmoniatsu bat izatea.

Pertsona guztiak beharrezkoak gara mundua hobetzeko. Badira ekintzekin mundua aldatu duten pertsonak eta gainerakoen erreferente bihurtu dira gizartean; adibidez, Malala Yousafzai, neskak hezkuntza eskuragarri izateko behararekin konprometitutako pertsona gazteena; edo Greta Thunberg, 16 urteko ingurumen-aktibista, klima-aldaketaren aurkako aktibismoaren liderra. Aurreko horiek bi adibide besterik ez dira, baina beste asko ere bilatu eta ezagut ditzakezu.

Eta gure buruari galdetuko diogu: nolakoak dira gure mundua hobetzen duten pertsonak? Guk ere hobe dezakegu.

3-6

HAUR-HEZKUNTZA

Gure bizitza hobetzen dugu ongi tratatuz. Irakasleak gure gelako lagunak izango diren toki desberdinetako haurren argazkiak bilatuko ditu (adibidez, Save the Children-en webgunean), eta mezu hau zabalduko du taldean: «*Nik ongi trata nazaten behar dut, baita nire lagunek ere*» munduko neska-mutil guztiak ongi trata ditzaten behar dutelako. Tratu ona pertsona solidarioen eta parte-hartzaileen hazia dira.

Gonbidatu parte-hartzaileei irakasleak aurkitu dituen lagun bakoitzari izen bat jartzera, guztiok ongi tratatu behar gaituztela azpimarratuz (horixe izango baita gure lema urte guztian).

6-12 LEHEN HEZKUNTZA

Irakasleak egunero gure mundua hobetzen duten pertsonen eta mundua hobetzeko egiten dutenari buruzko ideia-jasa bat egitea proposatuko du gelan. Pertsona horientzat loreak egitea proposatuko du, adin bakoitzera egokitutako lore errazak egingo dira. Lore horiek familian, auzoan, bizi garen herrian... gure mundua hobetzen duten pertsonekin trukatu dira **«zuk nire mundua hobetzen duzu eta elkarrekin Afrikako Adarreko beste haur batzuen mundua hobetuko dugu»**.

+12 BIGARREN HEZKUNTZA

Irakasleak Save the Children-ek Afrikako Adarreko neska-mutilen egoerari buruz bere webgunean zintzilikatutako bideoak ikustera gonbidatuko ditu, eta euren eskubideak hobetzeko gure babesaren behar dutela jakinaraziko du. Osatu lan-taldeak gelan eta animatu Afrikako Adarra babesteko beharra islatzen duen helburu edo ekintza bat sortzera (ipuin bat, orri-markatzaileak, kamisetak, herrian egiteko antzerkia, bideoa, pintura, dantza, poesia, karpeta, poltsa...), lasterketa egiten duten egunean erakutsi edo partekatu ahal izateko. Lan horiek zabalkuntzarekin elkartasun-kilometroetarako babesleak errazago lortuko dituzu eta Save the Children-ek testuinguruan egiten dituen proiektuak laguntzeko.

MATERIALA...

Koloretako papera, paper birziklatua, kartoi birziklatuak, pinturak eta aipatutako materialak





«TALDE-LANA DENEN ONURA ULERTZEKO»

AZALPENA

Baliabideen kudeaketa, kontsumo arduratsua eta jasangarritasuna funtsezkoak izango dira pertsona guztiek geroz eta globalizatuagoa den mundu batean elkarbizitza zuzen bat garatu ahal izateko.

Gure mundua errepasatuz gero herrialdeen artean, pertsonen aukeren artean eta eskubideak gozatzeko desberdinkeria larriak daudela ikusten dugu. Haurrek bidegabekeriak jasaten jarraitzen dute, eta baliabideak falta zaizkie modu egokian garatzeko. Egoera horretan, munduko partekatzea justizia handiagoarekin egitea eta pobreziaekin, duintasun-faltarekin eta giza sufrimenduarekin amaitzea.

Tokiak, pertsonak eta arazoak erabat konektatuta daude, eta konexio hori ulertzea mundua herrialde independenteen multzo soil bat ez dela ulertzea da, munduaren alde bateko aldaketek eta arazoek sistema guztian eragiten duelako. **Elkarren arteko konexioa eta babesa ulertzea talde-lanean aritzeko gai izatea da denon onura lortzeko.**

3-6

HAUR-HEZKUNTZA

Irakasleak munduko herrialdeen izenak (besteak beste, Afrikako Adarreko herrialdeak) jarri dizkiegun eraikuntza-piezak prestatuko ditu, eta parte-hartzaile bakoitzari pieza bat emango dio. «Talde-lanean aritzen gara denontzako mundu bat eraikitzeko» lemarekin, haur bakoitzak bere pieza jarriko du denen artean dorre bat egin arte, eta dorrea egitea lortzean denok txalo egingo dute. Irakasleak aukeratutako herrialdeak irakurriko ditu dorrea egiten duten bitartean eta egiten amaitzean, eta ikasleei herrialde horietako neska-mutilek bizi duten egoera etxean kontatzera gonbidatuko ditu.

Jarduera askotan errepika daiteke, ikasleak motibatuta daudela ikusiz gero, eta dorrea egiten duten bitartean elkarri lagun diezaioten azpimarratuko da, dorre altuagoa eta irmoagoa lortzeko, eta denon artean Afrikako Adarreko haur horien bizitza hobetu dezakezula ikusaraziko zaie.

6-12 LEHEN HEZKUNTZA

Irakasleak testu hau idatziko du pizarra digitalean: «**Talde-lanean ari gara haurren eskubideen, duintasunaren eta berdintasunaren alde**» (taldearen adinaren arabera, esaldia egokitu egin daiteke).

Irakasleak pinturak ateratzeko eskatuko die ikasleei eta birziklatzeko paperezko folioak banatuko dizkie. Ondoren, **misio bat** azalduko dio gela osoari: talde-lanean aritzea eta guztien arteko margotutako letrak sortzea arbeleko testua horma-irudi batean erreproduzitzeko; egoki iritziz gero, denbora-muga bat jarriko da, taldearen adinaren arabera. Zer gertatu da?, talde-lanean aritu gara?, horma-irudia egin dugu? Ariketari buruz hausnartu eta esperientziak partekatuko ditugu.

+12 BIGARREN HEZKUNTZA

Irakasleak jardueraren hasierako azalpena irakurriko dio gelari, eta lanerako bikoteak osatzeko gonbidapena egin eta ordenagailu-gelara joango dira eskubideen, duintasunaren eta berdintasunaren aldeko talde-lanaren filosofia islatzen duten esaldi garrantzitsuak bilatzeko, esaldi bakoitzaren egileak ere apuntatuz.

Gelan esaldi guztiak irakurriko dira eta esaldien ahozko eta ikusizko erakusketa bat egingo da ikastetxean: «*Eskubideen eta munduko hiritarren aldeko esaldiak*».

MATERIALA

Eraikuntza-piezak, arbel digitala, folioak, boligrafoak, birziklatzeko papera, pinturak, guraizeak, paper jarraitua, ordenagailuak, erakusketa-panelak.



Zero gosea eta justizia

I. ERANSKINA

Marraztu Pako	Marraztu Kokorikoko	Marraztu Sahra
Marraztu itsasoa	Marraztu herri bat	Marraztu ogitarteko bat
Marraztu Sahraren ama	Marraztu arroz-aleak	Marraztu “ez dago janaririk”

ELKARTASUN-LASTERKETARI BURUZKO OHIKO GALDERAK



Zein dira babesleak?, enpresak lortu behar ditugu?

Babesleak, normalean, ikasleen familiako kideak (aita, ama, aitona-amonak...) eta euren ekarpena txikia izan daiteke. Zenbat eta babesle gehiago, orduan eta sentsibilizazio handiagoa lortuko da eta emaitza hobeagoa izan da.

Lasterketa egun jakin batean egin behar da?

Ez, ikastetxeari hoberen datorkion egunean egin daiteke lasterketa. Jaiegun eta egun dibertigarri bihurtzeko, baina solidarioa izateari utzi gabe.

Material gehiago eska dezakegu parte hartzaile gehiago baditugu?

Bai, material gehiago eska dezakezue **carrera@savethechildren.org** helbide elektronikoaren bidez edo telefono bidez. Egun gutxi barru jasoko duzue ikastetxean.

Ikasleen dirua jasotakoan, nola entregatu behar diot Save the Children-i?

Babesleen dirua bildu ostean, ikastetxeak kontu honetan sartuko du dirua:

BANCO SANTANDER
ES55 0049 1837 5620 1024 9000

CAIXABANK
ES34 2100 5731 7302 0034 6675

Transferentzia bat egin daiteke edo eskudirutan sar daiteke.

Arazoak izan ditzakegu eskudirua sartzean?

Banku-erakundearen bulegoaren araberakoa da hori. Joan baino lehen, gure webgunea bisitatzea gomendatzen dizuegu. Bertan, zenbait aholku eta dokumentu lagungarri dituzue bankuak dirua sartzea ukatzea ekiditeko.



savethechildren.es/recaudacion-coles

Bildutako dirua beste banku-erakunde batean sar dezakegu?

Beste banku-erakunde batzuetan ere baditugu kontuak. Egoera horretan bazaudete, jarri harremanetan Ikastetxeetako programen sailarekin, eta dirua sartzeko beste banku-kontu batzuk emango dizkizuegu eta zein urrats jarraitu behar dituzuen ere bai.

Dirua sartzen duen ikastetxearen izena adieraztea garrantzitsua da?

Bai, oso garrantzitsua da izena eta herria jartzea. Horrela, ikastetxerako eskerrak emateko diploma bidal dezakegu, eta hezkuntza-komunitate osora ere heda daiteke eskertza hori.

Zalantzarik izanez gero, non eta norekin ebatz dezakegu?

Ikastetxeetako programen sailarekin jar zaitezke harremanetan:

Tel.: 91 513 05 00



carrera@savethechildren.org

Elkartasun-kilometroak eskola-umeak Afrikako herrialde pobretuetan bizi diren neska-mutilen kalteberatasun-egoerara gerturatzen dituen proposamena da, Save the Children-ek egiten dituen haurren biziraute-proiektuetarako funtsak lortzeko asmoz, eta haurren eskubideak ezagutarazi nahi dira, gida honetan aurkezten diren proposamen didaktikoen bidez.

**BIZIRIK IRAUN
IKASI
BABESTUTA IZAN**



Save the Children